

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUDUN TITULURAKO PROBA LIBREAK

Gizarte Zientzien esparrua

DATU PERTSONALAK

Deiturak..... Izena.....

NANa.....

Helbidea: Kalea/plaza.....zk.....PK.....


Herria..... Probintzia..... Telefonoa.....

Deialdia: 2016ko maiatza

PROPOSATURIKO ZAZPI GALDERETATIK BOST AUKERATU:

(Puntu 1 bakoitzeko)

1. Azal itzazu klima mediterraneoaren ezaugarriak, prezipitazioei eta tenperaturei dagokienez. Esan ezazu non dagoen Espainian eta Nafarroan.
2. Definitu itzazu kontzeptu hauek: latitudea, longitudea, meridianoa eta paraleloa. Esan ezazu zein den 0° meridianoa eta 0° paraleloa.
3. Espainiako energia iturriak: arazoak eta jarraitu beharreko politikak.
4. Egin itzazu Hirugarren Sektoreko jardueren sailkapena, haien garrantziaren arabera. Jar itzazu adibideak.
5. Biztanleria. Azal itzazu kontzeptu hauek: jaiotza-tasa, hilkortasun-tasa, berezko hazkundera, hazkunde erreal.
6. Europar Batasuna sortzeko prozesua: Seiko Europatik hasita gaur egun arteko segidako zabalteak.
7. Osa ezazu mapa jarraian dauden mendikateak eta ibaiak zuzen kokatuz. Jar ezazu dagokion tokian haien ondoan ageri den zenbakia:
1- Ebro 2- Guadiana 3- Sistema Betikoak. 4- Miño 5- Iberiar Sistema 6- Kantauriar Mendikatea 7- Guadalquivir 8- Pirinioak 9- Duero 10- Tajo.



PROPOSATURIKO ZAZPI GALDERETATIK BOST AUKERATU:

(Puntu 1 bakoitzeko)

1. Zeri deitzen zaio Antzinako Erregimena? Zer ezaugarri zituen politikaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntutik begiratuta?
2. Historiaurreko gizarteak. Azal itzazu Neolitikoaren ezaugarriak.
3. Azal ezazu zer izan zen Espainiako Independentzia Gerra eta kronologikoki koka ezazu. Espainiako zein erregek bete zuen tronua gerra hori bukatzean?
4. Industria-iraultzan, funtsean, zer gertatu zen? Noiz eta non gertatu zen hasieran? Zein motatako industrian aplikatu ziren lehendabizi lan metodo berriak?
5. Atenasko demokrazia. Azal itzazu haren ezaugarriak eta konpara itzazu gaur egungo demokraziarekin.
6. Azal ezazu kolonialismoaren fenomenoaren eta haren zergatiak. Zein izan ziren potentzia kolonial nagusiak? Eta kolonizaturiko eremuak?
7. Zer dira mugimendu faxistak? Noiz gertatu ziren? Zer ondorio eragin zituzten?

**GIZARTE ZIENTZIEN ESPARRUKO PUNTUAZIOA, OSOTARA: 10
PUNTU**